IZENAK ETA ADITZAK

Oiloa ala arrautza?

Lagun batek zera esan zion beste bati, adarra jo nahian:

–Zer izan zen lehenago, oiloa ala arrautza?

–Oiloa, jakina! –erantzun zuen besteak.

–Ba, oker zaude. Oiloak existitu baino askoz ere lehenago baziren arrautzak... dinosauroenak baina! Kar, kar, kar...

Arrazoi zuen. Aurrerantzean badakizue zer erantzun galdera hori egiten dizuenari!

1. **IZENAK ETA ADITZAK.** Ba al dakizu hauetatik zein hitz diren izenak, eta zein, aditzak?

IZENAK	ADITZAK

lagun esan erantzun arrautza galdera egiten zaude adarra olioa existitu dinosauroa

2. **IZEN MOTAK**. Jakingo al zenuke izen hauek honelako taula batean sailkatzen?

IZEN BEREZIAK	IZEN ARRUNTAK

Paris abeslaria Rihanna Rozinante Joseba hiria osaba Kantauri mendia Gorbea zaldia itxasoa

LIVEWORKSHEETS
LIVEWORKSHEETS

3. **IZEN ARRUNTAK ETA BEREZIAK.** Lotu izen arruntak eta bereziak gezi baten bidez.

uhartea ☐	☐ Arriaga
musika-talde ☐	☐ Agustín Ibarrola
aldizkaria ☐	☐ Guggenheim
antzokia ☐	☐ Gabon
museoa ☐	☐ Aritz Aduriz
margolaria ☐	☐ Gaztelugatxe
gaua ☐	☐ Elhuyar
kirolaria ☐	☐ Zea Mays

Izena eta aditza

- **Izena.** Bi izen mota daude: **arruntak** (letra xehez idazten dira) eta **bereziak** (letra larriz idazten dira).
  - *Joxepa (izen berezia)* *behia (izen arrunta)*
- **Aditza** ekintza adierazten duen hitza edo hitz multzoa da.
  - *Oiloak arrautza **errun du** (aditza).*
- Aditzak hitz bakarrekoak izan daitezke **(aditz trinkoak)**, edo hitz bat baino gehiagokoak **(aditz perifrastikoak)**.
  - *Oiloak bi hanka **ditu*** (aditz trinkoa). *Oilarrak harra **jan du*** (aditz perifrastikoa).

4. **ADITZAK.** Osatu esaldiak, aditz hauetatik egokiena jarriz.

zara zuen da dute daude zen

- ☐ Hegazti mota asko _____.
- ☐ Pinguinoek ezin _____ hegan egin.
- ☐ Nefertiti antzinako pertsonaia _____.
- ☐ Jausgailuan ibili al _____ inoiz?
- ☐ "Hegoak ebaki banizkio, nerea izango zen, ez _____ alde egingo..."

LIVEWORKSHEETS LIVEWORKSHEETS